



## Manifestazio jendetsuak, presoan alde egiteko

**MANIFESTAZIO IXILA** ▶ Villabona-Aiztondoko bost udalek deitutako ekimenak 400 lagun bildu zituen

**KONTZENTRAZIOAK** ▶ Hileroko azken ostiraletako elkarretaratzeak ere Urte Zaharrean izan ziren ▶ 6



Bost udalek deitutako manifestazio ixila Zizurkilen bukatu zuten. i. e.



IÑIGO TERRADILLOS

## Aparteko giroa Urte Zaharreko krosetan

**TOLOSALDEA** ▶ Tolosan San Silbestre krosa eta Villabona-Zizurkilen Urte Zaharrekoa izan ziren herenegun parte-hartzaile askorekin ▶ 7

**IZASKUN ARRIOLA** ▶ DANTZA IRAKASLEA

«Hizkuntzarekin batera, musikak eta dantzak diote nortzuk garen»

Barruan duena azalertzeko aukera ematen dio 'jazz'-ak tolosarrari ▶ 23

**HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA**

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

UZTURRETIK ▶  
EKAIN GARMENDIAEguberriak  
direla-  
eta...

**B**adira bi hilabete baino gehiago telebista iragarkiek abisu eman zigutela. Azken bi edo hiru asteotan, neozko olerntzero eta papanoelak elkarren artean borrokan ari dira kale kantoi ezdeusena ere norik argitu erabakitze-ko; eta egunotan ezinezkoa da irratia edo telebista piztea, Corte Inglesek edo Vodafonek patrozinatutako intentzio oneko Gabon kantarik entzun gabe. Bai, horien mehatxuak beti betetzen dira: hemen dira Eguberriak, urtero bezala. Vodafone kolore gorriko papanoelak ez du inoiz barkatzen.

Eta egia da, telebista iragarkietako *espíritu navideño*-a edonon aurki daiteke. Urte Zahar gaua kokaina irribarre inguratuta pasa duen edonork ondo daki hori. Urte Berria eta Eguberria zorionez beteta igarotzea kasik nahitaezko dirudien honetan, ez da harritzekoa hori modu nahiko heterodoxoan bilatu nahi izatea askok. Eta dena erosi eta saldu daitekeen egunotan, zoriona bera ere edozein kale kantoi erosi daiteke, gramotan prezioz neurtuta.

Noski, ez da hori Eguberriak intentsitatez ospatzeko modu bakarra. Eta horretan haurrak eredu ditugu. Plastikozko kamioi bat jaso berri duen haur baten zorion-aurpegi estasiatua adibide ona da hartarako. Ez dakit, halere, plastikozko zoriona eta anfetaminazkoa oso desberdinak ote diren. Bi kasuetan ere, hain dira biziak emozioak, maiz gainezka egiten baitute. *Violently happy*, abestiak zioen bezala.

Eta, halere, niri asko gustatzen zaizkit Eguberriak. Beti gustatu izan zaizkit. Eta, hain justu, aurretik esandako guztiarengatik. Eguberrietan inoiz baino biziago ikus baitzakegumundu honetako giza komedia. Eta niri, betidanik gustatu izan zait izugarri teatroa.



## Tolosako Udalak 2005eko aurrekontuak onartu ditu

**ASTEKO ALBISTEA** ▶ 2005eko aurrekontuak onartu ditu aste honetan Tolosako Udalak. Guztira 12,7 milioi euroko inbertsioak izango dira, «legealdiko inbertsiorik handiena», eta

gai garrantzitsuenak, Usabalgo kirolguneaz gain, Alde Zaharra sustatzea eta Euskal Herria plazako eraikina berritzea izango dira. JOXEMI SAIZAR

## IZASKUN ARRIOLA ▶ DANTZA IRAKASLEA

«Ameslariek eta kulturak  
idazten dute mundua»

Venezuelan barneratu zuen dantzarako maitasuna, eta sentimendu horrekin kutsatu nahi ditu bere ikasleak

## LEIRE MONTES

Beste irakasle laguntzaile batekin, ehun ikasle baino gehiagori ematen dizkie dantza eskolak Izaskun Arriolak, Tolosako Kasinoan. Lotsa kentzeko esaten die denei. Barruan dutena ateratzeko. Eta amesten jarraitzeko. Hala da bera: bizia, alai, eta ameslaria.

**Dantza eta musika artean bizizinen Venezuelan, eta hala jarraitu nahi izan duzu Tolosan.** Etxean ikusten nuena horixez, inguruan izan ditut beti musika eta dantza. Aita Elai-Alai konpainiako dantzaria zen, nire izeba salsa txapeldu-na... Gau eta egun egiten genuen dantza Venezuelan. Eta hona iristean ere hala izatea nahi nuen.

**Eta ikastaroetan izena eman zenuen.**

Tolosan, 13 urte bete nituenean, El Pilar balet eskolan eman

nuen izena, eta bost urtez ikasi nuen han. *Jazz* dantza ikastaro bat zegoela jakin nuen, eta probatzen animatu nintzen. Orduetik, hara eta hona ibili naiz: Donostia, Iruñea, Madril,artzelona, New York... eta Tolosa.

**Beharrezkoa al da kanpora joatea?**

Horretan profesionalki jardun nahi baduzu, hemen gutxi dago egiterik, laguntzak eta baliabideak urriak direlako. Dena den, ni beti izan naiz oso etxetzalea. Etxetik bertatik daukuzuna aurrera ateratzeko borrokatzea zailagoa iruditzen zait, baina horren aldekoa naiz ni.

**Eta lortu duzu?**

Orain hasi naiz emaitzez jabetzen. Hogeitaz urtetan egin dudana lanarekin pozik nago. Ez da garrantzi handiko ezer, baina jendea nik ezagutzen nuen munduan sartzea eta dantzarekin gozatzeko lortu dut, eta kontent nago horregatik.

**New York-eko egonaldia markatu egin zintuela diozu.**

Oso gogorra egin zitzaidan etxetik hain urrutiko egotea. Baina esperientzia aberasgarria izan zen, ahaztezina. *Jazz* dantzaren onena han dago, eta irakasle bikainak, estilo horretako aitzindariak. Dakidana haiek erakutsi zidaten. Batek esan zidana ez dut sekula ahaztuko: barruan nuena ateratzeko, barrutik ateratzen zitzaidanaren arabera jokatzeko. Eta horixe egin nuen.

**Eskolak emateari ekin zenion orduan.**

Tolosan jendeak dantza eskolak eskatzen zituen. Udalaren lehiaketa irabazi nuen, eta hamar urtez aritu nintzen lanean. Gero, nire eskola ireki nuen.

**Ikastea ala irakastea, zer nahiago?**

Bien arteko nahasketa. Eskolak jasotzea zoragarria da. Irakastea, berriz, oso gogorra. Baina,

egunero jardutearen poderioz, neurria hartzen diozu.

**Adin mugarik ba al dago dantza egiteko?**

4 urtetik 70era bitarteko ikasleak ditut. Ez dago mugarik, dantza bizitzen eta sentitzen duzun artean behintzat.

**Mutil gutxiago dituzu klaseetan. Zergatik?**

Venezuelan ez zen horrelakorik gertatzen, baina hemen gauzak aldatzea kostatzen ari da. Ohitura kontua da oraindik, gizartearen heziketarena. Baina, hori ere, aldatuko dugu.

**Ameslaria al zara?**

Umetan lagunak eta ni beti aritzen ginen proiektu berrietan pentsatzen, mundua konponetzen saiatzen. Egun, amets egiten jarraitzen dut. Ameslariek eta kulturak idazten dute mundua. Horretan sinesten dut nik. **Dantza ere amets egiteko bide?**

Egi bihurtutako ametsa. Dantza dena da niretzat. Arima, bihotza, bizitza jartzen dut horretan. Teknika oso garrantzitsua da, baina sentimendua izan behar du bidelagun: gorputzarekin eta aurpegiarekin hitz egin behar da. Ikasleei ere lotsa kentzeko esaten diet beti. **Zein estilorekin sentitzen zara erosoan?**

*Jazz* dantza dut oso gustuko. Barruan dudana azaleratzeko aukera ematen dit.

IRITZIA ▶ ENEKO DORRONSORO (GIPUZKOAKO EHNE-KO EHEKUTIBAKIDEA)

## Inposaketarik ez

**B**aserritarrok azken bolada honetan jasaten ari garen guztia, gizarte honetan gutxi jasateko moduko egoeira da. Gipuzkoako Foru Aldundiak azken legealdi honetan daraman politika salatuz hasi nahi nuke. Legealdiaren hasieran aipatutako elkarlana eta elkarriketa hitzetan soilik geratu dira.

Denbora horretan ez da gauza gutxi geratu, asko elkarriketak izateko adinakoak behintzat bai. Besteak beste, Gipuzkoan zegoen baserritarren gestio kooperatiba bakarrean, hau da, Lurgintza Gestio Kooperatiba, bazkideen arteko gatazka baten ondorioz, beste gestio zentru pribatu bat sortu da. Gatazka horren oinarrian Gestio zentruaren zuzendaritza nori osatu izan da. 35 urteko historian zehar, zuzendaritza baserritarrez osatua izan da eta egun ere baserritarrez osatua dago. Azken hiru urte hauetan hainbat batzar orokor, estatutu aldaketa, auzi bidean jarriak izan dira. Ondorioz langile eta talde batek beste enpresa pribatu bat sortzen bukatu du, Abelur SL. Prozesuan zehar administrazioek behin eta berriz ez zutela gatazkan parte hartzerik izango eta beste gestio zentru batentzat ez zegoela lekuri zioten. Baina administrazioari lotutako enpresak zuzendaritza ba-

zordean sartzen saiatu dira. Enpresa pribatu hau sortu zenetik EHNE sindikatuari bota diote zatiketaren erru guztia bertako zuzendaritza «kontrolatu» nahi zuela akusatuz. Horrez gain, enpresa pribatu hau sortu zenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak EHNE sindikatuaren zuzendaritzarekiko hartuemanak moztu ditu erabat sindikatua baztertuz. Prozesuan EHNEk jarrera tinkoa izan du, baserritarrek osatu behar dutela zuzendaritzaren gehiengo, baserritarren kooperatiba delako eta baserritarrei zuzendutako zerbitzuak emateko sortu delako. Baserritarrek defenditza ez al da nekazal sindikatu baten eginkizuna?

Horrez gain, Lurgintza kooperatibaren bidez gestioa eramaten zuten abeltzain elkarteei Foru Aldundiarekin sinatzen zuten urteroko hitzarmena eten eta hitzarmen horren bidez zegozkien diru publikoa konkurtso bidez banatuko zirela adierazi zituen. Lehiaketa publikoa guztiz bideratua izan da Abelur SL enpresa pribatuak lortzeko, besteak beste, langileen esperientziak puntuaketaren %60 baitzuen. Horrela Lurgintzatik irteerako langile taldeak osatutako enpresa pribatuak adjudikazioa eraman zuen, 35 urteko esperientzia duen Lurgintza gestio kooperatiba bazter-

tuz. Gaur arte abeltzain elkarte nagusienek hitzarmen hau ez dute sinatu, eta sinatu ez duten elkarte hauek diru publiko horren %70 jaso beharko lukete, aurreko urteetako hitzarmenak errespetatuko balira. Ez sinatzearen arrazoi nagusia autonomia guztia galduko dutelako da. Nekazaritza diputatuak proposatutako hitzarmenaren lehiketa publiko bidez adjudikatutako enpresa pribatuak kudeatuko du diru publiko hori, eta hitzarmena sinatzen duenak enpresa pribatu horren bidez eraman behako du bere gestioa. Elkarte hauek ez sinatzearen errua ere EHNE sindikatuari leporatu dio. Kasu honetan ere EHNEk jarrera tinko bat du. Baserritarrek osatutako elkarte guztiek beraien autonomi osoa behar dutela, eta hitzarmenak Foru Aldundiak eta elkarteei egin behar dituztela. Hau aldarrikatzea eta defenditza ez ote da nekazal sindikatu baten eginkizuna?

Gipuzkoako Nekazaritza Saileko foru diputatu den Nuria Lopez de Gereñuk bere erantzunkizunak baztertu eta EHNERi honen guztiaren errua botatzea ez da kasualitatea. Kooperatiba eta elkarte ezberdinetan demokrazia aukeratutako ordezkariak ez ditu errespetatu nahi. Beraien menpe ez badaude diru iturriak mozteari

ekiten diote. Eta menpe egoteko arrazoi bakarra administrazioari loturiko hainbat enpresa pribatu edo erdi pribatuak finantziatze bidea da. Baserritarrek geure elkarte eta kooperatiben zuzendaritzan egotea eta hauei buruzko iritzia propioa izatea diru laguntzak moztuz zigortarazi nahi digute. Eta bitartean baserriak ixten ari dira.

Baserritarrek asperturik eta nazkatutik gaude geure bizkar bizi direnez. Ez dugu onartuko gure kontura enpresa pribatuak diru publikoaz finantzatzea. Diru publikoaren mende ez dugu bizi nahi. Azken urteotan administrazioak politika bikaina egin du baserritarrek diru laguntzen menpe jartzeko; hau da, bere menpe. Eta horren guztiaren atzean alderdi politiko bakarra dago: EAJ. Haien politikaren aurka oldartzen denari txantaia ekonomikoak presioa egin, edo, bestela, inposaketaren bidea hartzen dute.

Laguntza gehien behar den unean Aldundiak inposaketaren bidean jarraitzen du. Errealitate politikoa baztertu eta gehiengo nagusian daudenez erraza egiten ari zaie inposatzea. Urte gutxi barru, ez dute zer inposaturik izango. Gutxi bagara ere oraindik badago gure arbasoen eta euskal nortasunaren oinarri izan diren baserri zutik eutsi nahi diegunik. Eta honetarako bide bakarra bertatik bizi nahi dugunon hitza entzun, eta guztion elkarlanaz aurrera egitea da. Inposaketarik ez.



LEIRE MONTES

## PERTSONALKI ▶

▶ Caracasen (Venezuela) jaioa ▶ 1963ko uztailaren 11n ▶ Batetik bestera ibili zen; «gurasoak oso nomadak ziren» ▶ 11 urte zituenean etorri zen familiarekin Tolosara ▶ Aita Elai-Alai konpainia ospetsuko dantzaria zen ▶ Dantza bezainbeste maite du antzerkia

**Antzerkia.** «Txikitatik antzerkigintzan ikusten nuen neure burua. Lagunek eta nik saioak eskaintzen genituen, behartsuentzat dirua biltzeko. Mundua konpondu nahi genuen. Gero, hainbat taldetan aritu nintzen, baina ezin nuen antzerkitik bizi. Lasterrean, dantza antzerkia egiteko aukera eskaintzen zidala konturatu nintzen»

## NORTASUNA

«Hizkuntzarekin batera, musika eta dantza dira lurralde baten erakusleak»

## URTE BERRIA

«Euskarako balada batekin hasiko nuke, 'jazz' dantza eta areto dantzekin nahastuta»

## Zer da jendeak gehien eskatzen duena?

Gazteek jazz dantza eta helduek dantza latinoak eta areto dantzak gehienbat. Sevillanek eta Argentinako tangoa dantzatzen ere ikasten dugu.

## Musika eta dantza bateraezina al dira?

Zaila egiten zait bata bestea gabe ulertzea, elkar osatu egiten baitute.

## Eta lurralde eta kultura bat ulertzen al dira haiek gabe?

Beti existitu izan dira dantza eta musika. Kulturaren, historiaren, tradizioaren elementu garrantzitsuak dira. Nortzuk garen esaten dutenak. Hizkun-

tzarekin batera, lurralde baten erakusleak.

## Zein dantza eta musikarekin hasiko zenuke 2005a?

Euskarazko balada batekin hasiko nuke urte berria, jazz dantzarekin eta areto dantzekin nahastuta.

## Proiektu askorekin buruan?

Balada horrekin emanaldi bat egitea gustatuko litzaidake, Tolosan, Vienan (Austria) urte berria bals-arekin agurtzen duten antzera. Ikasle talde batekin musikal bat ere egin nahi dut. 30 urte bete arte Broadway nuen uneoro buruan, eta orain ere, badakizu, amets egiten jarraitu behar...

## GIZARTEA ▶



Ekzer-eskuin, Xabier Lopez-Mendizabal, Javier Bello Portu eta Iñaki Linazasoro, 2004ean hil ziren Tolosako hiru pertsonaia ezagun. JOXEMI SAIZAR

## 2004an utzi gaituztenak

Kultur munduan ezagunak ziren Xabier Lopez-Mendizabal, Javier Bello Portu eta Iñaki Linazasoro tolosarrak hil dira joan den urtean

## EDURNE AYUSO

Urtea amaitu eta utzi gaituztenekin gogoratu da **HITZA**. Euskal kulturarekin lotura estua zuten hiru tolosar hil dira 2004ean: Xabier Lopez-Mendizabal argitaratzailea, Javier Bello Portu musikaria eta Iñaki Linazasoro idazle eta alkate ohia.

Lopez-Mendizabal urtarrilaren 31n hil zen Tolosako Asuncion klinikan 78 urte zituela bat-bateko gaixotasun baten ondorioz, Bello Portu Donostian otsailaren 13an 83 urterekin eta Linazasoro gaixotasun luze baten ondoren, Tolosako Asuncion klinikan apirilaren 26an, 72 urterekin.

## Euskaltzalea

Lopez-Mendizabal euskaltzale, abertzale eta kulturgizon ezaguna zen Euskal Herrian, batez ere aita izan zuen Ixaka Lopez-Mendizabalen lana jarraitu zuelako argitalpen munduan. 1925eko uztailaren 18an Tolosan jaioa, lehen ikastolako ikaslea izan zen. Gerra Zibila hastean erbesteratu egin behar izan zuen familia osoarekin, lehendabizi Ipar Euskal Herrira eta Argentinara ondoren. Han aitak gidatzen zuen eskal kultur mugimendu indartsuaren partaide izan zen. Laurak Bat euskal etxeko *Saski Naski* dantza eta musika ikuskizunean, aitak sortutako *Euz-*

*ko Deya* aldizkarian eta Ekin argitaletxean laguntzaile fina izan zen, administrazioan eta zuzenketetan lagunduz. 1966an itzuli zen Tolosara. Solana kaleko inprimategia berreskuratu eta han aritu zen lanean Xabier, duela urte gutxi erretiratu arte. Iaz bere liburu kuttuna, *Xabierto*, berrargitaratzea lortu zuen.

## Musikazalea

Bello Portu konposatzaile eta orkestra eta abesbatza zuzendari tolosarra 1920ko urriaren 27an jaio zen. Eduardo Mokoroa musikari ospetsuaren ikasle eta jarraitzaile izan zen. Von Karajan zuzendari ezagunaren

ikasle ere izan zen. Felipe Gorriti eskolania sortu zuen 23 urte zituela eta arrakasta handia lortu zuen. Euskal Herriko eta atzerriko orkestra eta abesbatza ugari zuzendu zituen: Donostiako Easo eta Maitea abesbatzak, Iruñeko Santa Cecilia Abesbatza, Donostiako eta Bilboko orkestra sinfonikoak, Madrilgo Orkestra Sinfonikoa, Montevideoko Kontserbatorioko Orkestra... Konposatzaile handia izan zen, batez ere abesbatzetarako obrak sortuz: *Lantzeko Ithauteria*, *Zalakainen negarra*, *Soule*... Gizon kultoa eta eruditoa zen. Suitzan eta Parisen urte askoan bizi ondoren, azken urteak Donostian eman zituen.

## Alor asko landutakoa

Linazasoro bizitzan zehar ekimen eta zeregin ugari aritu zen. Kazetari lanetan 1951ean hasi zen, lehen urteetan *La Voz de España*-n eta azken 30 urteotan *Diario Vasco*-n aritu zen. Euskaraz ere idatzi zuen *Aranztazu*, *Zeruko Argia* eta *Oargi* aldizkarietan. Argazki eta diapositiba asko atera ditu; horietako batzuk ikusgai izan ziren Aranburu Jauregian apirilaren zehar. Bidaia handia, gidari modura lan egin zuen urte askoan, mundu osoa ezagutuz. Aurkezle izan zen ekitaldi ugarietan. Zumarragan jaioa, 1961ean Tolosara etorri zen, ezkondu zenean. 1978tik 1983ra alkate izan zen EAJtik, lehendabizi Udal Gestoran eta gero lehen hauteskundeetatik atera zen udalbatzan. 2004ko martxoaren 27an Tolosako Udalak omenaldia eskaini zion urte luzeetako lanaren esker onez. Linazasorok hunkituta, maitasunez jaso zuen Udalaren omenaldia.

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAren **HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA** izango duzuzure **EROSKETETAN**

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu **HITZA** laguntzen’

▶ DENDA HAU EK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**honetekin**

TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**

San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**SHANTY KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA** laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

# Datozen urtemugak

2005eko urteurrenak: eraikinak, elkarteak, pertsonak...



Jesusen Alaben eliza, Berazubi stadiuma sutan, Berazubiko zubia eta Abraham Olano txapelduna. HITZA

## JOXEMI SAIZAR

Hasi berri den urtean beteko diren zenbait urtemuga ekarri nahi izan ditu Hrrzak gogora le-rootan.

## DUELA 100 URTE

**Eliza.** Jesusen Alaben eliza kongsagratu zuten.  
**Orfeoia.** Tolosako Orfeoia 2. gelditu zen Donostiako Lehiaketan, Donostikoaren ondoren, irailaren 16an.

## DUELA 75 URTE

**Erlijioa.** Asanblea Eukaristikoak izan zen Tolosan.  
**Txinparta-Gure Txokoa.** Bi elkar-te hauek sortu zituzten Tolosan.  
**Telefonica.** Zentral telefonikoa jarri zuten Nafarroa etorbidean.

## DUELA 50 URTE

**Saskibaloia.** Lehen saskibaloia taldea eratu zuten Tolosan.  
**Zubia.** Alfonso X. Jakintsuaren omenezko zubia eraki zuten Berazubin, maiatzean.  
**Berazubi.** Sute batek Berazubi stadiumeko tribuna erre zuen, abuztuaren 11n. Hurrengo urteko abuztuaren 26an inauguratu zuten berria Real Athletic futbol partiduarekin eta saskibaloia eta tenis pistarekin batera.  
**XIV Orduak.** Tolosa CFk XIV Orduko Ibilaldia antolatu zuten.

## DUELA 25 URTE

**Xabier Peña.** Xabier Peña Euskaltzaindiako kide tolosarra hil zen Bilbon.  
**Olinpiar Jokoak.** Roberto Cabrejas Tolosa CFko atletak Moskuko Olinpiar Jokoetan hartu zuen parte altuera jautzian.  
**Batelak.** Veleta-Aiz Orratz elkarteko batelak Espainiako Txapelketa irabazi zuen Luancon.  
**Kiroldegia.** Udal kiroldegia ireki zuten Berazubin, irailaren 19an.  
**Kilometroak 80.** Tolosako Lasakorain ikastolaren alde izan zen Kilometroak 80, urriaren 5ean.  
**Uzturpe.** Ibarako Uzturpe ikastolako egoitza berria inauguratu zuen Egin.  
**Hilketa.** Aurelio Prieto guardia zibila hil zuten Izaskunen izandako tiroketa batean, azaroaren 21ean.

## DUELA 10 URTE

**Pio Montoya.** Pio Montoya apaiz alegiar euskaltzalea hil zen.  
**Lasa-Zabala.** Joxean Lasa eta

Joxi Zabala gazte tolosarren gorpuak agertu ziren Busot-en (Alacant), martxoaren 21ean.  
**'Martxaundi'.** Galtzaundik herriko musika taldeen lehen maketa atera zuen, martxoan.  
**Azoka.** Ibilgailu klasikoekin I. Azoka izan zen, ekainean.  
**Liburua.** Jose Mari Tuduriren *Tolosa. Argazkiak (1900-1920)* liburua aurkeztu zuten, ekainaren 22an.  
**Txirindularitza.** Jon del Rio jubenil mailan eta Ainhoa Artola-zabal senior mailan Espainiako Txirindulari Txapelketa irabazle, uztailaren. Biak tolosarrak dira.  
**Munduko txapelduna.** Abraham Olano anoetarra Munduko Txirindulari Txapelketa irabazle Kolonbian Miguel Indurainen aurretik.  
**SAM.** SAM enpresa Usabalera pasatu zen, zaharra botata.  
**Liburua.** *Tolosa, euskal aber-tzaletasunaren bihotza* liburua aurkeztu zuten, abenduaren 15ean.  
**Euria.** 156 egun euritsu izan ziren urtean zehar.  
**Irratia.** Goiko Irratia hasi zen emittitzen Eskolapioen ikastetxetik.  
**Aurr.** Dantza taldea sortu zuten Ibarren, abenduaren 4an.

**Urtarrilaren 4an irekiko dugu Txotx denboraldia**

**R. ZABALA**  
SAGARDOTEGIA

Gazteko Barria • 20150 ADUNA • Gipuzkoa  
Tel. 943 69 07 74 • www.rzabala.com

## ASTEASU ▶ AIZKORA



Juan Manuel Erasunek jardun zuen atzo azkenean. HITZA

# Urrezko Aizkolarien lehiaketa garrantzitsua

Finalerdiak jokatu dituzten guztien izenak jakiteko aukera izango da gaur eguerdian

## IRATXE ETXEBESTE

Urrezko Aizkolarien lehiaketaren bi saio garrantzitsuetako azkena jokatu dute gaur puntako aizkolariek. Asteasuko pilotalekuan, Olasagasti eta Etxebeste Peñagarikanoren eta Txapartegiren aurka neurtuko dira 12:30etik aurrera. Beizamakoak eta Aizarnakoak lehenengo saioa izango dute, eta Igeldoko bikoak, berri, bigarrena. Lehen jardunaldian Senosiain anaia mendean hartzea lortu zuten, eta gaur irabaziko balute, finalerdietarako sailkapena eskuan izango lukete.

Peñagarikanok eta Txapartegik finala jokatu zuten joan den urtean, eta aurten ere ahaileginduko dira iazkoa errepikatzen. Haiek irabazte-kotan, azken jardunaldian erabakiko da guztia, baina finalerdietako sailkapena esku-eskura izango du bikoteak. Bestalde, gazte txapelketa-ko saioa ere izango da gaur Asteasun. B multzoko saioan, Iriarte eta Otaegi Larrionen eta Amillanoren aurka ariko dira. Azken horiek bigarren saioa dute, eta lehendabizikoa galdu egin zuten, gaurkoan irabazten ez badute kalean

geratuko dira. Iriarte eta Otaegi dira bai saioa bai lehiaketa irabazteko faborito nagusiak.

Atzo jokatu zuten finalerdietara sailkatzeko lehen kanporaketa Zeanurin. Bertako saioaren ostean ezagutu ahal izan ziren finalerdian ariko diren izenak, baina erredakzio hau iterako lehia amaitzera. Beizamakoak eta Aizarnakoak multzoan jardun zutenetarik irten behar zuten lehen bikoak; Nazabal eta Erdozia Beitiaren eta Lopezen aurka aritzeak ziren, baina Lopez osatu ez zenez, bere orde-z Juan Manuel Erasun aizkolaria eta segalari zizurkildarrak jardun zuen azkenean.

Nazabalek eta Erdoziak igandean irabazi zieten Arros-pideri eta Ugartebururi, eta atzokoan irabaziz gero finalerdian izango lirateke. Hartara, Arrospeidete eta Ugarteburuk beste kanporaketa bat ere jokatu ahal izango lukete. Beitiak eta Erasunek irabazita, hiru bikoteak berdinduta geratuko lirateke, eta orduan puntuen arabera erabakiko litzateke sailkapena. Atzo arratsaldeko zazpietan hasitako kanporaketari eta gaur Asteasun jokatu denari buruzkoak asteartean azalduko ditu Hrrzak egunkarian.

**KIMETZ MUTILENTZAT**  
**GAZTE ARROPA eta NESKENTZAT**  
**ARROPA eta OSAGALETAN**  
**ESKAIINTZA HANDIA**

**Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62**

PRESOAK ▶

# Presoen eskubideen alde

## Tolosaldean eta Leitzan dispertsioaren aurka bildu dira Urte Zahar Egunean

IMANOL GARCIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan presoak Euskal Herriratzeko eskatuz eta dispertsioaren aurkako aldarrikapenak eginez manifestazioak eta elkarretaratzeak burutu ziren, ohi denez, urteko azken egunean. Villabona-Aiztondoko bost udalek deituta, laurehun lagun inguruk Villabonako eta Zizurkilgo kaleetan zehar manifestazio ixila egin zuten.

Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Alkizako udalek egin zuten deialdia, *Giza eskubideak denontzat, euskal presoak euskal herrira lelopean*. Udaletako ordezkariak eta presoek senideek eraman zuten pankarta manifestazioaren buruan eta ondoren senideek banakako lerroan presoek argazkiak eraman zituzten. Manifestaldia Zizurkilgo Joxe Arregi plazan amaitu zen.

Bertan, Egoitz Sorozabal zinegotzi zizurkildarrak bost udalek izenpetutako bandoaren irakurketa egin zuen. Idatzian azpimarratzen zenez, «dispertsioaren aurka eta euskal presoak Euskal Herrian egoteko duten eskubidea» aldarrikatu zuten.

Ibarran, 250 lagun inguruk hartu zuten parte, Ibarrara Herri Ekimenak deitu eta beste herriko talde ezberdinen atxikimendua jasotako manifestazioan. Herriko kaleetatik zehar egin zuten ibilbidea *Presoen eskubideen defentsan* lelopean. Bukaeran, irakurritako idatzian, besteak beste, Ibarrako Udalak manifestazioari bere atxikimendua ez ematea kritikatu zuten. Ondoren, Alurr taldeko dantzari batek *Ator*, *Ator* dantzatu zuten.

Leitzan egindako manifestazioan 200 lagunek hartu zuten parte *Amnistia eta Askatasuna* lelopean egindako manifestazioan. Guardia Zibila inguruan izan zen, baina ez zuen oztoporik jarri eta manifestazioa normaltasunez burutu zen.

Alegian ere herriko kaleetan zehar ibili ziren *Euskal presoak etxera* lelopean. 130 lagun inguruk hartu zuten parte. Bukaerako idatzian, Oihane Errazkin eta presoek bisitan joandakoan hildako Karmele Solaguren gogoratu zituzten.

Tolosan, Anoetan —70 lagun—, Altzon (20), Asteasun, Ikaztegieta, Lizartzan eta Amezketan ere bildu ziren presoek eskubideen alde.



Eskualdeko bost udalek deitutako manifestazioa Villabonako kale batetik igarotzen. I. GARCIA



'Ator, Ator' dantzatu zuten Alurr taldeko dantzari batek herriko plazan, presoek argazkien aurrean. HITZA



Alegiako manifestazioa plazan amaitu zuten eta bertan irakurri zuten idatzia. HITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Etxebeste, J.M., Gernikako arbola 3, (Tolosa). 943 651040.

Erbiti, O, Lizarraga 7, (Leitza).

112.

**Bihar.** Santa Maria, I, Nafarroa

etorbidea 2, (Tolosa). 943

654610.

Gimeno A, Elbarren 52, (Leitza).

112.

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aiz.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Etxebizitza.** Alegiako Larraitx auzoan, etxea salgai.

680 570952.

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai

Tolosa erdialdean. 117 m2.

Agentziek ez deitu. 656 766439.

**Baxua.** Baxu elektrikoa salgai.

620 156555.

TOLOSA ▶ VII. SAN SILBESTRE KROSA



80 gaztetxok eta 100 heldu inguruk hartu zuten parte VII. San Silbestre Elkartasun Krosean. I. TERRADILLOS

# Aparteko giroa VII. San Silbestre krosean

Gaztetxoen nahiz nagusien partehartzea handia izan zen; korrikalariak animatzera jende asko hurbildu zen kalera

IÑIGO TERRADILLOS

Samaniego-Orixe ikastetxeko Kirol Eskolak antolatuta, eta Tolosa Hiri Komertzialaren, Igarondo elkartearen, Tolosa-ko Udalaren eta Tolosa CF-ren laguntzarekin, VII. San Silbestre

tre krosa izan zen ostiralean. Denera, 80 gaztetxok hartu zuten parte eta 100 inguru izan ziren nagusien mailan.

Aurtengoa, Elkartasun Krosa izanik, bertan bildutako dirua Indiara bidaliko dute, San Bartolome Misio Taldea eta

Calcuta Ondoan Gobernu Kanpoko Erakundeen bidez.

Maila eta lasterketa desberdinetan garatu zen krosa. Adinaren arabera, egin beharreko ibilbidea desberdina zen; horrela, benjaminek 750 metro, alebinek 1.500 metro, infanti-

SAILKAPENA ▶

NAGUSIAK

MUTILAK

1. Iker Manso
2. Manu Otermin
3. Lander Egja
4. Enrike Piedra

NESKAK

1. Maider Gaztañaga
2. Onintza Lasa
3. Ainhoa Egiguren
4. Maialen Lopez

lek 2.000 metro eta nagusiek 5.000 metro egin behar izan zituzten.

Lehendabizi benjamin neskek eta mutilak atera ziren eta Kepa Izagirre eta Jone Gomez izan ziren lehenak helmugan. Alebinetan, Maddi Garikano eta Unai Arrollo izan ziren garaileak eta infantiletan Jon Etxaide eta Sandra Lopez. Nagusietan, berriz, Iker Manso eta Maider Gaztañaga iritsi ziren lehen.

Garaikurrak eman zizkieten lehendabizikoei eta dominak, diplomak eta bestelako opariak ere banatu zituzten antolatzaileek. Sari banaketaren ostean afariak zozketatu zituzten parte-hartzaile guztien artean.

Jende ugari gerturatu zen arratsalde osoan zehar korrikalariak animatzera, urtea amaitzeko ohiturako hitzordua bihurtu den krosera.

TOLOSA ▶

## Produktuen eskaintza zabala, baina erosle gutxi

Larunbateroko azoka ostiralera aurreratu izanak ez die batere lagundu erosleei

PABLO ALBERDI

Lasaitasuna nagusitu zen ostiraleko azokan. Dirudienez, azoka eguna ostiralera aurreratzeak eragin negatiboa izan zuen erosleengan, eta goizaren bukaeran ez ziren salmentak oso altuak izan. Hala ere, produktoreen eskaintza ez zen makala izan, eta arlo horretan ez zen ezein falta nabaritu.

Neguko barazki ugari izan zen: borraia, azelgak, porruak, azenarioak, azak, azaloreak, brokolia, romanesku aza eta gardua, besteen artean. Fruitarbolen eta basoepetzieen zerrenda ere luzea izan zen. Sagarrondoak, udarondoak, insignis pinua, haritzak, pagoak...

OSTIRALEKO AZOKA ▶

Produktuak merk. gares.

Bertakoak	merk.	gares.
Uxo	5,00	-
Oilaskoa (3 aste)	1,50	-
Oilaskoa (4 aste)	1,60	-
Ahatea	2,50	-
Gaztaina	2,00	3,00
Intxaurra	3,00	4,00
Errezil sagarra	2,00	5,00

Ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Dilistak	2,40	-
Arroza	2,40	-
Arrautzak	3,50	-

Berdura plazakoak

Haritz amerikarra	0,70	1,00
Larrosondoa mini	6,50	-
Porrua	2,40	-
Lilia	1,20	-

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ URTE ZAHARREKO KROSA

## Partaide ugari urteko azken eguneko krosean

Asier Cuevas eta Izaskun Zubeldia izan dira irabazleak 350 parte-hartzaileen artean

I. GARCIA

Villabonako Zumbeltz eta Zizurkilgo Urkamendi elkarrekin antolatzen duten Urte Zaharreko Krosaren XXI. edizioan korrikalari ugari izan ziren giro onean parte hartzen. Guztira 350 partaide inguru aritu ziren Villabonan eta Zizurkilen kaleetatik igarotzen zen ibilbidean.

Sailkapenari dagokionez, gizonetako lehenengo Asier Cuevas eibartarra izan zen. Bigarren, Ander Arrastio beteluarra eta hirugarren Fernando Irazoki leitzarra izan ziren. Emakumezkoetan, Izaskun Zubeldia billabonatarra izan zen irabazlea. Bigarren eta hirugarren Garbiñe Galarraga amasarra eta Ainhoa Mendia billa-

bonatarra izan ziren. Gazteetan bi maila zeuden. Hamar urte bitartekoetan, Eneko Alkorta billabonatarra izan zen lehenengo mutila eta Lierni Kamio billabonatarra lehenengo neska. Hamaika eta hamalau urte bitarteko mailan, Eneko Garin billabonatarra izan zen lehenengo mutila eta Tamara Lozano zizurkildarrak lortu zuen lehen postua nesketan.

Irabazle guztiek oroigarria



Maila guztietako irabazleak, oroigarriekin. I. GARCIA

jaso zuten eta nagusien mailan lehenengo hirurek Zumbeltzen egingo duten afari baterako bigonbidapen jaso zituzten. Afari horretarako beste hamar gonbidapen zozketatu zituzten parte-hartzaileen artean.

**OTEGI** eraikuntzak, s.l.

**Promozioa eta eraikuntzak**

Bizkai kalea, 2 - behea  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

**zuhazki** Zuzindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

